

# Hautzaroa Egipton

## Kontuan hartzeko hiztegia

- *hileta*= funerala
- *bermatu*= garantizatu
- *hobetsi*= nahiago
- *erditu*= umea izan
- *hozbero*= temperatura
- *zinginarri*= amuleto
- *soildu*= rapatu
- *ile-xerlo*= ile metxoi
- *zibota*= peonza
- *jardun*= dihardu, aritu

Antzinako Egiptoko familiek egungoen antzekoak ziren. **Familia nuklearra** aita, ama eta seme-alabek osatzen zuten, oso etxe txikian pilatuta. Seme-alabek, nerabezaroa igaro ondoren, etxetik alde egin eta norberak bere bidea egiten zuen.

**Haur baten jaiotza jainkoen oparizat hartzen zen** antzinako Egipton eta horrela jasotzen da papiro zaharretan. Izan ere, kide berriekin familiaren jarraipena eta gurasoen etorkizuneko **hileta**-errituak **bermatzen** ziren.

Nahiz mutila *hobetsi*, neska baten jaiotza ere ongi etorria izaten zen. Emakumeak etxean **erditzen** ziren. **Haurrari, jaio orduko, lepoko bat zintzilikatzen zioten, jainkoen babesas jaso zezan**. Ordea, erditzetan eta haurraren bizitzako lehen hilabetean hilkortasun-tasa oso handia zen. Horrelakoetan, haurtxoa etxe-ondoan bertan lurperatzen zuten, zuzenean ontziren batean sartuta edo, goi mailako familietan, momifikatuak.



Hautzaroan haurrak, inguruko **hozberoak** kontuan hartuta, **biluzik ibiltzen ziren** hara eta hona, **lepoko zinginarriren** baten babespean, **soildutako** burutik **ile-xerlo** bakarra zeramatela zintzilik. Urteak bete ahala, gaztetxoak helduen egitekoetan murgiltzen hasten ziren, familiaren egoera sozialaren arabera ia beti. Izan ere, familiek lanbide berean **jardun** ohi zuten belaunaldiz belaunaldi eta, horregatik, **10**

**urteko gaztetxoak aitari zegokion lanbidean trebatzen hasten ziren gehienetan: nekazaritza, abeltzaingoa, arrantza, ehiza, ardogintza, artisautza...**

Gizonezko gehienak nekazaritzan edo merkataritzan ari ziren bitartean, emakumezkoak etxeko lanez arduratzen ziren: josi, alea ehotu, ogia egin, otorduak

prestatu... Hori bai, aztarnek erakutsi digutenez, emakumeek itxura fisikoa zaintzea eta makilatzea gustukoa zuten.

Lehen heziketa etxean bertan jasotzen zuten, eta gero auzoan edo inguruan zegoen eskolaren batean. Ikasgaiak oinarrizkoak izaten ziren, artean idazkera hieroglifikoaren hastapenak.

Sarritan goi-funtzionarioek eskolak ikuskatzen zituzten, bertako ikaslerik azkarrenak biltzeko eta haiei lanbide egokiagoak eskaintzeko administrazioan. Hori izaten zen mailaketa sozialean goraka egiteko bidea.

Aisiari dagokionez, hilobietako aztarnei esker ezagutu ditugu antzinako Egiptoko neska eta mutikoek erabiltzen zituzten jostailuak. Zurezko animaliak ziren gehien maite zituztenak, kolore biziz margotuak: zaldiak, lehoiak, krokodiloak... Oro har, zurezko jostailuak oso preziatuak izan ohi ziren, zura bera oso eskasa baitzen Egipton. Panpinak ere oso ohikoak ziren, zurezkoak nahiz buztinezkoak. Baliabide gutxiko familietako haurrek landare-zuntzez egindako pilotekin eta *zibotarekin* jolasten ziren.